

UDAL-BATZARRA 11/05

**UDAL-BATZARRAK, 2005eko ABENDUAREN 1ean EGINDAKO
OHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Nieves Alarcos Martinez

M^o Carmen Egurza Salaberria

Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARIA:

Nekane AGIRRESAROBE ETXEBERRIA

ANOETako Udaletxean, 2005ko abenduaren 1ean iluntzeko zortziak eta laurden direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik eta Jesús M^a Arsuaga Lizaso, Kepa De la Iglesia Sánchez eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

1.- 2005EKO IRAILAREN 29AN OSPATURIKO AKTAREN ONESPENA.

Udalbatzak 2005eko irailaren 29an egindako bilkuraren akta irakurri eta aho batez onetsirik geratu da.

Es leida y aprobada por unanimidad de los reunidos el acta de la sesión celebrada con fecha 29 de septiembre 2005.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 385TIK 412RA BITARTE, BIAK BARNE.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 285tik 412ra, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números 385 al 412, ambos inclusive; dándose la Corporación por enterada.

3.- 2005 URTEKO AURREKONTU OROKORRA ETA PERTSONALAREN PLANTILA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak 2005 ekitaldirako aurkeztu duen Aurrekontu Orokorra ikusi ondoren.

Ikusirik, 2005 ekitaldirako Plantila Organikoa eta Lanpostu Zerrenda.

Udaletxeko Idazkari Orokorrak egindako txostenak ikusirik.

Visto el Presupuesto General para el ejercicio 2005 presentado por el Sr. Alcalde.

Vista la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo para el ejercicio 2005.

Vistos los informes emitidos por el Secretario General del Ayuntamiento.

“Alkate jaunak Aurrekontuaren berri besteak beste zera adierazten du: aurrekontuak orainarte mahai gainean zintzilik egoteak, ez dela kasualitate hutsa izan hainbat arrazoi izan dira hau horrelaizatea motibatu duenak. Gure erreferentzia izaten da zati handi batean behintzat aurreko aurrekontuak. 2003 urteko aurrekontuaren egora kontrolatu gabe zegoen eta 2004koa egiteko 2003 hartu genuen erreferentzi modura eta berdin 2005ekoak egiteko. Momentu honetan ez zaigu asko falta eguneratzeko baina oraindik bai daut batzuk. Guk udaltalde bezela 2005eko datuak eskuratu genituenetik, udara inguru eta hasi ginen Foru Aldundiarekin nolabaiteko lank egiten, hitzarmena egiten subentzio mailan edo finantziazio mailan. Epe hori guk nahi baino gehiago luzatu da eta azaroaren erdialdera finkatu zitzaigun ze finantziazio izango genuen eta horrekin hasi ginen aurrekontuak ixten. Hori horrela 2005 urteko aurrekontuak jartzen zaizkigu 2.504.625 eurotan.

Ondoren, nahiz sarrera nahiz gastuen kapituloak banan bana esplikatzeko ditu”.

Ondoren, alkate jaunak ondorengo botutara jartzen du:

- a) 2005 ekitaldirako AURREKONTU OROKORRA.
- b) 2005 ekitaldirako AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA.
- c) PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA

partaideek aho batez onetsiz:

Lehenengo.- 2005 ekitaldirako aurkeztu den Aurrekontu Orokorra, atal guztietan, kapituloka ondorengo izanik:

A continuación, el Sr. alcalde somete a votación:

- a) EL PRESUPUESTO PROPIO para el ejercicio 2005.
- b) LA NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA para el ejercicio 2005.
- c) LA PLANTILLA ORGANICA Y LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO

aprobándose por unanimidad de los reunidos:

Primero.- El Presupuesto Propio presentado en todas sus partes para el ejercicio 2005 de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos:

SARRERAK /INGRESOS

KAP./ CAP	IZENDAPENA/DENOMINACIÓN	EUROAK/ EUROS
1	ZUZENEKO ZERGA/IMPUESTOS DIRECTOS	281.500
2	ZEHARKAKO ZERGA/IMPUESTOS INDIRECTOS	60.000
3	TASAK ETA BESTE. SARRER/TASAS Y OTROS INGRES	241.468
4	TRANSFEREN.ARRUNTAK/TRANSFEREN.CORRIEN.	961.371
5	ONDARE-SARRERAK/INGRESOS PATRIMONIALES	2.150
6	INBERTS. ERREL.BESTEREN/ENAJEN. INVERSIÓN. REALES	272.155
7	KAPITAL TRANFERENTZ/TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	685.981
TOTAL		2.504.625

GASTUAK/GASTOS

KAP/ CAP	IZENDAPENA/DENOMINACIÓN	EURAK/ EUROS
1	PERTSONAL GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL	560.962
2	ONDASUN ARRUNT.ETA ZERB.EROSKETA/COMPRA BIENES CTES Y SERVICIOS	746.303
3	FINANTZA GASTUAK/GASTOS FINANCIEROS	62.440
4	TRANSFEREN. ARRUNTAK/TRANFERENCIAS CORRIENTES	236.970
6	INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES	654.608
7	KAPITAL TRANFEREN./TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	223.842
8	FINANTZA AKTIBOAK/ACTIVOS FINANCIEROS	19.500
TOTAL		2.504.625

Bigarren.- 2005 ekitaldirako Aurrekontu gauzatzeko Udal Araua.

Hirugarren.- Ondorengo Plantila Organikoa eta Lanpostu Zerrenda:

Segundo.- La Norma de Ejecución Presupuestaria para el ejercicio 2005.

Tercero.- La plantilla Orgánica y la relación de puestos de trabajo presentada, siendo ésta:

2005. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOA

A) FUNTZIONARIOAK

Lanpostuaren deitura	Kopurua	6/89 Legeko 43. art arabera	Egoera	Oharrak
1. Idazkari--Kontuhartzailea	1	B	J	
2.- Kultur Dinamizatzailea	1	B	J	
3.- Erdi mailako tekniko	1	B	H/I	
4.- Administrataria	1	C	J	
5.- Zerbitzu anitzetako ofiziala	1	D	J	
6. – Administrari laguntzailea	2	D	H/I	

B) LANGILEGOA

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Oharrak
1 Aparejadorea	1	B	F	Dedikazioa % 68,60
2 Gizarte laguntzailea	1	B	H	Dedikazioa % 48
3 Liburtegiko Arduraduna	1	C	F	Dedikazioa % 52
4 Kale garbitzailea	1	E	F	
5 Eraikin garbitzailea	1	E	F	
6 Zerbitzu anitzetako langilea	1	E	F	

EGOERA

J: Jabea

F: Behin betiko

H: Bete gabe

I: Bitarteko pertsonalarekin betea

2.- LANPOSTUEN ZERRENDA

A) Karrerako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIK		TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK.		BET. ERA	E.TIT	DED.	OHARRA K
		DESTINU	ESPEZIF				KOEF	DER.DAT				
Idazkari-Kontuhartz.	1	20	17.814	B	GN	I-K	4	94.XII.31	L	ZD/ED	%100	DBO%25
Kultur Dinamiza.	1	17	6.384	B	AA	EB	3	00.XII.31	LO	D	%100	
Erdi mailako teknik.	1	17	14.490	B	AO	EMT	3	01.VI.12	LO	DD/DE	%100	
Administrataria	1	14	11.760	C	AO	AD	3	94.XII.31	LO	B	%100	
Administr. Lagun.	1	11	10.772	D	AO	LG	2	92.XII.31	LO	O	%100	
Administr. Lagun.	1	11	10.772	D	AO	LG	2	94.XII.31	LO	O	%100	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	11	13.175	D	AA	HL	2	94.XII.31	LO	O	%100	

B) Lan—hitzarmendun langile finkoentzat erreserbatutako lanpostuak

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIK		TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK.		BET.ER A	E. Tit	DED.	OHARRAK
		DESTINU OSAG.	OSAG. ESPEZIF		KOEF	DER. DATA				

Aparejadorea	1	19	11.460	B	3	02.XII.31	LO	AT	%68,60	
Gizarte Laguntzailea	1	14	5.359	B	3	92.XII.31	LO	GZD	%48	
Liburutegiko ardura.	1	9	4.915	C	3	92.XI.31	LO	B	%52	(1)
Kale garbitzailea	1	7	9.877	E	1		LO	EZ	%100	
Eraikinen garbitz.	1	7	9.877	E	1	92.XI.31	LO	EZ	%100	
Zerbitzu anitzetako lang.	1	7	9.877	E	1	00.XII.31	LO	EZ	%100	

(1) Donostiako Lan arloko 4. epaitegiaren sententzia fijo izendatuz

KLABEAK/CLAVES

TALDEA EDO ESKALA/GRUPO O ESCALA

GN: GAIKUNTZA NAZIONALA/HN: HABILITACION NACIONAL
AO: ADMINISTRAZIO OROKORRA/ AG: ADMINISTRACION GENERAL
AA: APARTEKO ADMINISTRAZIOA/ AE: ADMINISTRACION ESPECIAL

AZPIESKALA/SUBESCALA

I-K: IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/S-I: SECRETARIA-INTERVENCION
EB: EGINBEHAR BEREZIAK/ CE: COMETIDOS ESPECIALES
T: TEKNIKARIA/T: TECNICO
AD: ADMINISTRARIA/AD: ADMINISTRATIVO
LG: LAGUNTZAILEAK/AU: AUXILIARES
HL: HERRI LANETAKO LANGILEAK/PO: PERSONAL OFICIOS

PROBISIO ERA/FORMA DE PROVISION:

L:LEHIAKETA/ C: CONCURSO
LO:LEHIAKETA-OPOSAKETA/CO: CONCURSO-OPOSICION

ESKATURIKO TITULUA/ TITULACION EXIGIDA

ZD:ZUZENBIDE DIPLOMATUA/DD: DIPLOMADO DERECHO
ED: ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA/DE: DIPLOMADO EMPRESARIALES
D: EDOZEIN DIPLOMATURA EDO ERDI MAILAKO UNIBERTSITATE TITULOA, EDO LIZENTZIATURAKO LEHENENGO HIRU URTEAK GAINDITUA/D: CUALQUIER DIPLOMATURA O TITULO UNIVERSITARIO DE GRADO MEDIO, O APROBACIÓN DE TRES PRIMEROS CURSOS DE CUALQUIER LICENCIATURA UNIVERSITARIA.
AT: ARKITEKTU TEKNIKO/AT: ARQUITECTO TECNICO
GZD: GIZARTE ZERBITZUETAN DIPLOMATUA/DTS: DIPLOMADO EN TRABAJO SOCIAL
B: BBB EDO BALIOKIDEA/B: BUPO O EQUIVALENTE
O: OHO EDO BALIOKIDEA/E: EGB O EQUIVALENTE
EZ: ESKOLA ZIURTAGIRIA/CE: CERTIFICADO ESCOLARIDAD

Laugarren.- Hasierako izaeraz onetsi de nurrekontua, plantila organikoa eta lanpostu zerrenda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean dagoen legediak agintzen duen eran.

Cuarto.- Publicar el presupuesto aprobado inicialmente, así como la plantilla orgánica de personal y la relación de puestos de trabajo, en el Boletín Oficial de Guipúzcoa, conforme lo exige la legislación vigente.

Aurrekontua jendaurrean aurkezturik dagoen epealdian inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko izaeraz honetsita geratuko da, eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da berriro, kapituluz-kapitulu laburririk.

Bostgarren.- Aurrekontua, behin-betiko izaeraz onetsirik, eta Plantila Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren kopia bana, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, dagokion departamenduetara.

El presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el plazo de exposición al público no se hubiese presentado reclamación alguna, debiendo anunciarse nuevamente en el Boletín Oficial de Guipúzcoa resumido por capítulos.

Quinto.- Remitir copia del Presupuesto Propio definitivamente aprobado, así como de la Plantilla Orgánica del personal y la Relación de Puestos de Trabajo, al correspondiente Departamento de la Diputación Foral de Guipúzcoa.

4. ANOETAKO HERRIAN EUSKERA ARLOKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Euskera departamentuko Erdi Teknikaria den Idoia Olano andreak aurkezturiko euskera arloko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri erregulatzailerak eta deialdia ikusi ondoren.

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengo adierazten die:

“Subentzio legeari lotuta, euskeratik ematen diren dirulaguntzak emateko irizpide batzuk markatzen dira bost puntu hauen bidez: - Barnetegietara edo euskaltegietara euskara ikastera joaten diren herritarrek. – Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen udako euskarazko ikastaroetara joaten direnek. – Euskarazko komunikabideek. – Euskara sustatzea helburu duten D erekuaren aldeko irakaskuntzako erakundeek. – Euskararen normalizazioa helburu duten euskalgintzako erakundeek”

Hau dela eta, partaideek aho batez erabakitzen dute dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri erregulatzailerak eta deialdia onestea, akta honi erantsirik doan eranskinean agertzen den moduan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek publikatzea.

Visto la convocatoria y bases reguladoras para la concesión de subvención en materia de euskera presentada por el Técnico Medio del Departamento de Euskera Dña. Idoia Olano.

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar la convocatoria y bases reguladoras para la concesión de subvenciones presentada en los términos que se señalan en el anexo adjunto a la presente acta y publicar las mismas en el Boletín Oficial de Guipúzcoa.

5.- GALDE-ERREGUAK

Galde-Erreguen garaian bertaratutako batek hitza eskatzen du ondorengo galderak egiteko:	Durante el periodo de ruegos y preguntas uno de los asistentes a la sesión solicita la palabra para formular las siguientes:
--	--

1. puntuari dagokionez:

2005eko azaroaren 10eko aktaren zirriborro bat ez zaie eman, bulegoan galdetu ondoren akta oraindik jaso gabe zegoela jakinarazi zaie. Indarrean dagoen arautegia ez dela betetzen jakinarazten du, honek hamar eguneko epean aktak jasota egon behar dutela bait dio.

3. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek galdera asko ditu egiteko eta gastuetatik hasten da:

“Aurtengo festak eta 2004 urtekoak beste urtetakoak baino garestiagok izan dira eta zuek aurreko alditan datu hauekin gainera botatzen zineten eta beste alde batetik zerbait pentsatu beharko dugu, Festak banatuta daude, non dago justifikazioa gastu horrekin jarraitzeko?”

Otermin zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Uste dut jeisten joan direla, edo mantendu bestela...”

Bertaratutakoak dio:

“Datu hori nahi nuke ziurtatzeko eta gero talde bezela izan duzuten jarrera beti ikaragarri iruditen zitzaizuen eta orain are eta gehiago jende banaketa dagoenean”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Baina horrek ez du esan nahi batzuk herriko festetan parte hartu nahi ez izateak festak gutxiago egin behar direnik, herriko festak dira eta denetarako pentsatuta daude. Baten batek bere kontura hartzen badu erabakiren bat hor parte ez hartzea, hori ez dagokio udalari erantzuna ematea”.

Bertaratutakoak dio:

“Beste alde batetik, aurrekontuan azaltzen da Herriko plaza inguruko azpiegitura obra, jakin nahi genuke lan hauek zein diren”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Honen inguruan, plazako etxe horrek zeuken eremu bat. Arridonek zeuken hitzartuta bere inguruko eremu hori baino honetaz aparte egin zen Biyak-bat etxearen bueltan hasi eta txokolateria dagoen etxe horren buelta guztiaren urbanizazio osoa egin zen, plazan, eliz-atze horretan pasilo hori ere ireki egin zen. Baita ere sartuta dago kuadro elektrikoa lekuz aldatzea, lehen zegoen Biyak-baten eta elizaren ondora aldatu behar izan da”.

Bertaratutakoak dio:

“Bestalde, nola da posible inbertsio bat egitea oraindik aurrekontuak onartu gabe daudenean? Hori posible ahal da juridikoki? Horri buruzko txosten bat nahi nuke.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Zati bat egina dago eta beste bat ez eta hemango zaizu horri buruzko txostena”.

Bertaratutakoak dio:

“Gastutan ere agertzen da tuberiaren berrikuntza, ez dut ongi ulertu, Ur kontsorzioarekin egin duzute tratua pixkanaka egiteko aldaketa guztia?

Alkate jaunak erantzuten du:

“Hau Solkorre 1 parean depositutik behera datorren tuberia konpontzeko da. Ur Kontsorzioarekin dago bakarrik mantenimendu prebentiboa aurrikusita ez reposizioa”.

Bertaratutakoak dio:

“Kiroldegiko transformadoreari buruz gaizki ez badut ulertu, ez zegoen aurrikusita proiektuan, honen esplikazioa nahi dut”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Iberdrolak 2000 urte arte jartzen zituen “Centro de transformación” bera bakarrik zegoelako argindarra saltzen. 2000 urtetik aurrera, merkatua ireki zenetik, berak utzi egin zuen “Centro de transformación” jartzeari eta nolabait promotoreak jarri behar ditu. Proiektua egin zen 2002 urtean eta ez zen aurrikusi, kasu honetan udalak jarri behar zuen eta gure sorpresarako abisatu zitzaigun lehengo urtean, ez aurten, “Centro de transformación” hori jarri behar zela, hortik hasi ginen eta nolabait kopuru hori azken batean ateratzen da obra zibila gehi ekipoa”.

Bertaratutakoak dio:

“Horri buruz, nik beste datu batzuk ditudanez nahi nuke daukazu informe guzti horren, txosten guzti horien kopia bat. Nik daukaten informazioaren arabera ez da horrela eta orduan kontrastatu nahi nuke egia edo gezurra esan didazu”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Nik daukatena da bere garaian arkitekturekin kolaboratzen duen enpresak elerazitako fax bat esanez nola aurrikusi behar zen eta nahi duzunean ikusiko dugu hori, uste dut hirigintzako bilera batean komentatu genuela”.

Bertaratutakoak dio:

“Sarreratara joanez, jakin nahi dut Mikelasagasti baserriaren terrenoen errendamendua nola dagoen”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Hor daude terreno batzuk Mikelasagastik zeuzkanak eta hori erabiltzen dute Mendibilkoan, San Juanekoak eta Alustizak”.

Bertaratutakoak dio:

“Sarrerekin jarraituz, eraikinetakoak eta bestelako eraikuntzak, 119m2ko lokala Herriko Plaza, 1ean, hemen ez badaukat gaizki zenbakia behintzak 84.000 euroko sarrera bezala penstatzen dira. Ez dakit nik antigualekoa geratu naizen, m2 horiek zatituta, neri behintzak 117.500 pta gutxiago ateratzen zaizkit m2ko. Horrekin esan nahi nuke gutxi gora behera orain dela bi urte erosi zenean lokala ez plazan baino San Juan kalean, haurtzaindegia egiteko, 200.000 ptatan pagatu zen, desfase hori ez dut ulertzen, azkenean da 10.000.000 galtzen ditu udal honek eta gainera orain dela bi urteko prezioekin ari gara, nere galdera izango litzateke, hor Batzoki baten intzertzioa dago?”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ez duzu ulertu, aurretikan esplikatu dut kopuru hori baditu bi zati, hor daude 84.000 euro eta gero “Convenio Urbanístico” hori 60.000 euro. Nolabait hori da lokal horren prezioa.”

Otermin zinegotzi jaunak dio:

“Arridonekin hitzarmen bat firmatu zen orain dela urte batzuk babes ofizialeko etxeak egiteko eta honen arabera Arridonek utzi behar zuen udalaren esku lokal bat. Lokal hori eskuratzeko ordaindu behar zen kantitate bat, ez zen dohain. Guk pentsatzen dugu lokal horrek ez duela momentu honetan, ez diogula etekinik aterako eta orduan erosi beharrean, azken finean erosi behar genuen kantitate bat ordaintzen gehi gastuak gehi bez gehi erregistora etab. Bera etorri da proposamen batekin, esanez oraindik bere izenean dago, ez da udalaren lokala, berak proposatu du guri saldu beharrean bera prest dagoela erosteko. Ez dugu ikusten zertarako balio duen udalarentzako momentu honetan eta proposamen horren arabera kendu da gastu bat eta sarrera hau jarri da. Orduan hau ez da saltzen den prezioa, baizik eta gehi ordaindu behar duguna, ez dugu ordainduko”.

Bertaratutakoak dio:

“Hemen zuek diozuenaren bezela baldin bada 60.000 gehi 84.000 ateratzen da 144.000, justu biderkatzen baduzue 119 m2 x 1200€ ateratzen da gutxi gora behera erderaz esaten den bezela “clavado”.

Otermin zinegotzi jaunak dio:

“Hau da Arridonen proposamena eta minimo bezela jarri dugu, oinarri bezela aldamenean Kutxak duen lokalaren erreferentzia hartu dugu. Prezio txarra ez da, Kutxak ordaintzen du ordaindu behar dena, ez dauka problemik ordaintzeko; naiz eta Arridonek asko eskatu Kutxa prest dago behar badu hori ordaintzeko eta prezio horren arabera hori lortu dugu oinarri bezela. Gainera Kutxaren lokala hobe da, bestea piska bat baztertua dago.”

Bertaratutakoak dio:

“Orduan 120 m2 ia dituen lokal batek Herriko Plazan udal batetik ez dauka inongo ikusgerik?, inongo irtenbiderik?”

Otermin zinegotzi jaunak dio:

“Eduki, eduki, nahi baduzu bai. Gertatzen da, ekonomia ez dago saneatuta momentu honetan, dirua balego aprobetxatuko genuke, hor dago eta etekina ateratzeko bai noski, baina beste lokalak badaude...”

Bertaratutakoak dio:

“Orbinoko referentzia, 76.250 €, oraindik ez da kobratu diru hori?”

Otermin zinegotzi jaunak dio:

“Ez hitzarmenaren arabera, Fidelek sinatu zuen baina hitzarmena aurretik hitzartuta zegoen eta oker ez banago kantitate hori kobratzeko lizentzia bat eman behar da ez dakit ze prozesuan eta momentuan. Prozesu horretara ez gara ailegatu. Dakizun bezala Orbinok gauza bat egin du gu ez gaude ados eta momentu honetan errecurso batzuk jarrita daude ez gara kobratzeko momentura ailegatu. Baita ere, gestio batzuk egin ditugu eta momentu honetan abokatu artean hitzegiten ari dira, pentsatzen dugu konponketa batera ailegatuko garela eta horregatik sartu dugu, pentsatuz ailegatuko dela hurrengo hilabeteetan momentu hori”.

Bertaratutakoak dio:

“Hor Orbinokekin “plusvalía” batzuk generatu ziren eta kobratu ziren?”

Otermin zinegotzi jaunak dio:

“Gauza berdina esaten dizut, “plusvalía” horiek ailegatuko dira lizentziak ematen direnean edo exekuzio proiektua onartzen denean, oraindik fase horretara ez gara ailegatu, oker ez banago “Estudio de detalle” aprobatua dago eta urbanizazio proiektua aprobatuta dago eta horren kontra errekurtoa jarri dute, exekuzio proiektua onartzeko urbanizazio proiektua onartua behar du izan”.

Bertaratutakoak dio:

“Bulegoari buruz, ez dakit, galdera bat etortzen zait burura, langileei buruz esan nahi nuke gaur egun, udaletxeak idazkaritzan daukan plantila nahikoa ahal da, baten bat sobratzen den, ongi ajustatua dagoen, zuen iritzia jakin nahi nuke”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Guk nolabait, gastu pertsonaletan, momentu honetan udalak dituen gastu pertsonalak gutxi edo gehio parekatuta daude beste herriekin, gure tamainako beste herriek dituzten gastu pertsonalarekin. Esango nuke ez dagoela hain desadostatua beste herrietan ematen den lanarekin, hori bat, eta bestalde nik uste dut rekonozitu behar dugula Anoetako udalean momentu honetan dagoen, egiten ari den lanaren erritmoa nahiko ona eta altua dela. Gehiago behar den, dudarik ez, nik jarriko nuke beste pertsona bat gustora, baina lehen aipatu dugun eguneratze prozesua bizkorragoa izan dadin baina aurrekontuak ez dute ematen eta orduan nolabait denak jartzen duten esfuerzoari esker ari gara eguneratzeko prozesu horretan”.

Bertaratutakoak dio:

“Aurrekontuari buruz jakin nahi genuke Hazienda Batzorderik egin den”.

Otermin zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Noski”.

Bertaratutakoak dio:

“Akta jaso genezake? Eta beste alde batetik, ze aukera izango genuke guk aurrekontutan parte hartzeko?”

Otermin zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Parte hartzeko?. Aurrekontuak taldean lantzen dira eta gero Hazienda Batzordean. Udaletxea osatu zenean paper bat egin zenuten non parte hartu nahi zenuten eta Hazienda Batzordean ez zen inor azaldu. Ez dakit legez posible den, beste batzordeak legez irekiak dira, Hazienda batzordea ez dakit, baina interesa baduzue formula bat bila dezakegu”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Gure aldetik behintzat posible den neurrian inolako arazorik ez dugu hori aurrera eramateko”.

Bertaratutakoak dio:

“Langileei buruz jakin nahi nuke 2005 urteko komenioa onartuta dagoen”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Oraindik ez, azken berria dauket, langileen hitzarmena Eudelek tratatzen ari dela sindikatu guztiekin, badakit Ela ez dagoela mahai horretan”.

Bertaratutakoak dio:

“Beste alde batetik, zer gertatzen da Mankomunitatearekin? Iraila aldera edo esan zen hori ez zuela jarraituko eta ez dakit disolbatuta dago, ez dago?”.

Otermin zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Ez, ez, momentu honetan formalki ez. Esan nahi dut denon artean, interesatu guztien artean, bi udaletxeak eta ikastolaren artean erabakia onartuta dago hori desegin behar dela eta beste sistema batean sartu behar garela baina formalki ez da bilera edo asanblada egin formalki desegiteko. Urtero “Tribunal de Cuentas”-etik etortzen da txosten bat esanez Mankomunitatea hori alegala dela ez dela legala erabat eta horregatik hori izan da oinarria momentu batean edo bestean desgiteko. Baita ere alde batetik, azken finean, momentu honetan Mankomunitatearen helburua bakarra da Ikastolari laguntzea ekonomikoki, agian hasieran beste helburu batzuk izango zituen eta ondorioak baina momentu honetan hori bakarra da eta errazagoa da hitzarmen bat sinatzea Herri Ikastolarekin eta Irurako Udalarekin eta hortik hartzen du behar duen subentzioa edo laguntza, orduan sinplifikatu egiten da laguntza”.

Bertaratutakoak dio:

“Beste alde batetik, harrিতuta utzi didazue Diputazioarekin lortu dituzuen akordioekin!”.

Otermin zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Diskutitzen, hitzegiten, esplikatzen, negoziatzen, lortu dugu”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Bakoitzari tokatu zaion garaietan ere posible zen egitea hori baino ez ziren bideak jorratu”.

Otermin zinegotzi jaunak erantzuten du:

“Subentzio asko ateratzen da boletinean eta aukera ematen du edozeinek eskatzeko eta ematen dute gehiago edo gutxiago segun zenbat herri eskatzen duten eta proportzioan ematen dute eta izan da eskatu, proiektua aurkeztu, hitz egin, joan, negoziatu eta guri hainbeste tokatzen zaigu”.

Bertaratutakoak dio:

“Orduan, aurreko udaletxeak, zeharka behintzat, gai ez dira izan gauza horiek lortzeko”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Aukera batzuk galdu dira. Boletinean ateratzen dira, egon beha duzu “al día” ateratzen den bakoitzari lotzeko. Momentu honetan, gaur goizena bi eskaera egin ditut dirulaguntzena”.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko bederatziak eta berrogei minutu direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.